

ALKATETZAREN PROBIDENTZIA LANALDIAREN LUZAPENAK

2020ko otsailaren 12an, Alkatezaren probidentzia eman zen “*prest egotea*”, “*luzapena*” zein “*orduen poltsa*” kontzeptuei dagokienez, eta aplikazio-irizpideak ezarri ziren.

Dokumentuan ez zen zehaztu prest egoteko osagarria %10ean esleituta duten langileek gehienez zenbat ordu egin ahal izango dituzten lanean, eta pertsona horiei segurtasun juridikoa emateko, egokia da probidentzia atal horretan aldatzea. Beraz, probidentzia honela idatzita egongo da:

“2019ko urriaren 30ean Udalak egindako Osoko Bilkuran onetsi zen Udaleko langileen 2020ko Plantilla Organikoa. Ondorioz, langile gehien osagarriak igo eta egokitu dira. Aldaketen oinarritzak hartu zen Talentixek 2018ko martxoan egindako lanpostuen balorazio txostena eta langile bakoitzarekin egindako negoziaketa zuzena. Kasu berezia da albientearena, hari aplikatzen baitzaizkio Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legea eta Talentixek eta Biderkak egindako txosten propioak.

Onetsitako Plantillaren arabera, langile batzuei onetsi zitzaien “prest egoteko osagarria” (*complemento de disponibilidad o prolongación*), ehuneko hauekin: 4, 7 edo 10.

Kontuan izanda “*prest egotea*”, “*luzapena*” zein “*orduen poltsa*” kontzeptuak aplikatzeko moduan zalantzak sortzen direla langileen artean, Probidentzia hau ematen dut haiek argitzeko eta aplikatzeko irizpideak ezartzeko. Hori dela eta, ondoko hau jakinarazten dut:

1. ZER DA PREST EGOTEA ETA NOIZ SARTUKO DIRA LANALDIAREN LUZAPENAK KONTZEPTU HORRETAN.

Prest egotea da, lanpostuaren ezaugarriak direla eta, langileak ohiko lanalditik kanpo lanera etortzeko prest egon behar duenean egoera jakin batzuei erantzuteko: aberiak, ur-fugak, larrialdiak, Osoko Bilkurak, bilerak, ekitaldi zehatzak (kirol-probak, desfileak, etab.) eta antzekoak. Kasu horietan, lanalditik kanpo egin diren orduak luzapentzat hartu ahal izateko, irizpide hauek jarraituko dira:

1.1. Prest egoteko osagarria duten langileak.

1.1.1.- Langilea Udalaren aginduz etorriko da lanera, langilea bera ez bada izan aberia, ur-fuga edo larrialdia aurkitu duena izan ezik. Kasu horietan, Alkateari abisua eman eta gertatutakoa idatzi behar da lan-partean. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira Eguberrietako Olentzero eta Errege kabalगतak, Inauterietako astelehena (lan-egutegian jaieguna baldin bada), bestak eta Lurraren Eguna (egun horiek aztertzen dira gero, 1.3. puntuan).

1.1.2.- Fitxategian “31. Lan ordutegi luzapena” kodea jarri behar da lanaldiaren luzapena hasi eta bukatzerakoan.

1.1.3.- Larrialdia asteburu eta jaiegunean gertatzen bada, lanean egindako orduak bi aldiz kontatuko dira (bikoitza).

1.1.4.- Larrialdia izanda, langileak herrira etorri behar badu Beratik kanpo dagoelako (berdin laneguna edo jaieguna bada), kilometrajea ordainduko zaio.

1.1.5.- Hauek dira osagarri ehuneko bakoitzari dagokion ordu kopurua:

%4ko osagarria: 20 ordutik 50 ordura bitarte urtean.

%7ko osagarria: 50 ordutik 75 ordura bitarte urtean.

%10eko osagarria: 75 ordutik 100 ordura bitarte urtean.

1.1.6.- Langileak lanaldiaren luzapenean egin dituen orduak zenbatuko dira urtearen bukaeran eta bere osagarriari dagokion tartean beharko du egon. Bi egoera hauek eman daitezke:

- Tartearen gutxienera ez bada iritsi, hurrengo urterako osagarria egokitzen ahal da benetazko luzapenera doitzeko. Egokitzapen hori Udalaren eskumena izango da, beharrezko azterketa egin ostean.

- Gehienezko ordu-tartea gainditu bada, gainditu den ordu kopurua egun librekin konpentsatuko da (gehienezko ordu bat = opor ordu 1) urtarrileko hilean. Egun horiek urtarrilaren 31 baino lehen hartu behar dira, bestela galdu egingo dira.

1.1.7.- Ez da aparteko ordurik ordainduko.

1.1.8.- Lanaldi arruntetik kanpo lanpostura joan beharrezkin lotutako dietak ere ez dira ordainduko.

1.1.9.- Puntu honetan (1.1.) ezarritako baldintzak betetzen ez dituen ordu-soberakinak ordu-poltsa handituko du. Poltsa hori langile bakoitzak kontrolatu beharko du, urtearen amaieran dauden soberakinak ez baitira ordainduko, ez eta egun librekin konpentsatuko ere.

1.2. Prest egoteko osagarriak ez duten langileak.

1.2.1.- Zerbitzuaren beharrek hala eskatzen badute, Udalak dei diezaike langile horiei beren lan-ordutegi arruntetik kanpo lan egin dezaten, edo lanaldia luzatzeko agindu dakieke, premiazko lan bat egiteko, izapide bat amaitzeko epea bukatzen delako edo antzeko kontuengatik.

1.2.2.- Fitxategian “33. Ordu estrak” kodea jarri behar da lanaldiaren luzapena hasi eta bukatzerakoan.

1.2.3.- Udalaren aginduz lan egindako orduak bakarrik hartuko dira kontuan.

1.2.4.- Aipatutako baldintzak beteta lanaldiaren luzapenean egindako orduak horrela konpentsatuko dira:

- Lanegunean egindako lan ordu bakoitza hartu beharreko 1,45 ordu librekin konpentsatuko da.

- Asteburuan edo jaiegunean egindako lan ordu bakoitza hartu beharreko 2 ordu librekin konpentsatuko da.

1.2.5.- Larrialdia izanda, langileak herrira etorri behar badu Beratik kanpo dagoelako (berdin laneguna edo jaieguna bada), kilometrajea ordainduko zaio.

1.2.6.- Ez da aparteko ordurik ordainduko.

1.2.7.- Lanaldi arruntetik kanpo lanpostura joan beharrekin lotutako dietak ere ez dira ordainduko.

1.2.8.- Puntu honetan (1.2.) ezarritako baldintzak betetzen ez dituen ordu-soberakinak ordu-poltsa handituko du. Poltsa hori langile bakoitzak kontrolatu beharko du, urtearen amaieran dauden soberakinak ez baitira ordainduko, ez eta egun librekin konpentsatuko ere.

1.3. Eguberrietako Olentzero eta Errege kabalgatak, Inauterietako astelehena (lan-egutegian jaieguna baldin bada), bestak eta Lurraren Eguna.

1.3.1.- Prest egoteko osagarria duten langileen kasuan, Udalaren aginduz egun horietan lan egindako orduak ez dira gehituko urteko lanaldiaren luzapeneko zenbaketan.

1.3.2.- Horrela konpentsatuko dira kasu guztietan —osagarria duten eta ez duten langileak— egun horietan egindako lan orduak: bi ordu libre hartzeko, egindako lan ordu bakoitzeko.

2. KASU BEREZIAK.

2.1. Eskolako atezaina.

Kontuan izanda Eskola-egutegia eta -ordutegia bete behar dituela, ez zaizkio Probidentzia honetan jarritako irizpeak aplikatuko.

2.2. Albientea.

2.2.1.- Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legeak ezarritako osagarriak aplikatu behar zaizkio eta, ondorioz, ez du prest egoteko osagarri propiorik.

2.2.2.- Langile horri prest egoteko osagarriarik ez duten langileentzat aipatutako irizpide berberak aplikatuko zaizkio (1.2. eta 1.3. puntuak).

3. LAN-PARTEAK.

Irizpide hauek guztiak behar bezala aplikatu eta kontrolatu ahal izateko ezinbestekoa da langile guztiak lan-partearik betetzea egunero eta hilabeteko

lehendabiziko egunean kontu-hartzaileari bidaltzea. Eginbehar hau betetzen ez duen langileari ohartaraziko zaio eta, hala ere, jarraitzen badu ez betetzen, beste neurriak hartu beharko dira.”.

Agiri honek ondorioak izan ditzan, udal langile guztiei kopia emango zaie eta iragarki taulan eta Gardentasun Atarian argitaratuko da.

Beran, 2020ko apirilaren 21a.

ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.